

## BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Bezeroarekiko harremana oso garrantzitsua da produktua saldu ahal izateko. Harreman egokia mantentzen badugu, denborarekin produktu ale gehiago saltzeko ahalmena izango dugu, fama hobetuz izatean bezero gehiago erakarriko baititugu.




Lehen bezeroak erakartzeko, propaganda eta publizitate egokia emango diogu Erreziklatorri, hartara publiko handiago bati ezagutzera eraman diezaiokegu gure produktua.



Behin publizitate egokia egina eta lehen bezeroak lortuak, lehen bezero horiek bezero berriak ekar dezaten, tratu egokia eta produktuaren erosketara eta erabilera esperientzi egokia eskeiniko diegu lehen bezeroei, ospe hona lortzeko asmoz. Azken hau lortzeko, hainbat abantail eskeiniko ditugu; hala nola, garantiak, kalitate proba bat...

Horrekin batera, gure garapenera begira, prozesu guztiaren bukaeran, inkesta bat betetzea eskatuko diegu lehen bezeroei gauza honak eta hobekuntzak azpimarratu ahal izateko eta hurrengoan akats horiek hobetu ala zuzendu ahal izateko.



Bezeroekiko harremana beti errespetuzkoa eta lagungarria izan behar du, bezeroari ahal den ehinean lagundu eta arazoak konpontzen saiatu behar baikara. Gainera, bezeroa zerbitzuarekin pozik mantentzen saiatu behar gara; horrela, edozein akats badugu, bezeroak akats horri importantzia txikiagoa emango dio, dagoeneko pozik baitago zerbitzuarekin. Haiekiko harremana telefono ala korreo elektroniko bidez izan daiteke, denda digitala izango baitugu eta, horrekin batera, ofizinetatik edozein arazo konpontzeko gai izan behar gara.

